



Udazkeneko txapelketa 2024-2025

Saskibaloia

Lekua: Unibertsitateko Kiroldegiko kantxa – Ctra. de Leioa a Unbe nº 6- 48950 Leioa-Erandio (Bizkaia)

TXAPELKETAKO ARAUAK

- Taldeek **garaiz** iritsi behar dute instalazioetara. Denek batera sartu behar dute instalazioetara, gutxienez partida hasi baino **15 minutu** lehenago. **Partidak hasteko ordua ezingo da 5 minutu baino gehiago atzeratu**. Denbora tarte hori igaro ondoren, aurkeztu ez den taldeari galdutzat emango zaio partida. Debehatuta dago erretzea eta edari alkoholdunak eramatea. Talde bakoitzak **8 jokalaria izan beharko ditu gutxienez**, eta **gehienez 10**.
- Derrigorrezkoa** da instalaziora iristean **arbitro taldeari NANA eta egiaztagiria edo unibertsitateko txartela aurkeztea**. Aurkezten ez dituztenek EZINGO DUTE TXAPELKETAKO EGUNETAN JOKATU.
- Partiden iraupena: Multzoka Fasea:** izena eman duten taldeak multzoka banatuta egongo dira. Multzo bakoitzean liga bat jokatu da 10 minutuko denbora 2, etenik gabe, **multzo bakoitzeko lehenengoa sailkatuko da**, geroago **txapeldunen arteko liga bat jokatzeko** partiduak 10 minutuko denbora 2 izango dira bakoitza denbora jarraitukoa. Partida bakoitzean, talde bakoitzak hutsarte bakarra eskatu ahal izango du. **Denborak aldatu daitezke talde kopuruaren arabera**.
Partida guztietan puntu gehien biltzen duena izango da multzo bakoitzeko talde irabazlea. Berdinketa gertatuz gero, multzokako fasean, irabazlea markatutako eta jasotako puntuen artean alderik handien duena izango da. Irabaziz gero: 2 puntu. Berdinduz gero: 1 puntu. Galduz gero: 0 puntu.
- DERRIGORREZKOA DA** talde bakoitzak bere baloia eramatea, berotzeko, eta beharrezkoa balitz, partida jokatzeko.
- Jantzia:** Arbitroen lana errazteko, taldeek eraman behar izango dituzte 2 kamiseta, bat argia eta beste bat iluna.
- ARBITROA:** **arbitroa ez agertzea ez da aitzakia izango partida bertan behera uzteko edo atzeratzeko**. Horren ordez, ordezkariek ados jarriko dira arbitratzeko, eta emaitza balioduna izango da sailkapenerako. Gainera, partida amaitu eta 24 orduko epean, partidara bertaratutakoen izen-abizenak, NANA eta partidaren emaitza idatzi beharko dira orri batean eta Kirol Zerbitzuari bidali (**bi-kirolak@ehu.eus** helbide elektronikora edo eskura). Orri hori berandu bidaltzen bada, arrazoirik gabe, partida galdutzat emango da bi taldeentzat
- Talde bat ez bada partida batera agertzen, galdutzat emango zaio partida, eta, gainera, puntuak eta kredituak galduko ditu (Lehiaketa Batzordeak berretsiko du zehapena). Bigarren aldiz gauza bera gertatuz gero, taldea txapelketatik kanpo geldituko da.
- Kredituak aitortzeko eskaera:** banan-banan egingo da. Hauxe da esteka:
<https://www.ehu.eus/eu/web/ehukirola/prestakuntza/kredituak-kirolaren-arabera-aitortzea> Unibertsitateko Txapelketak guztiak bukatuta,
- OSO GARRANTZITSUA:** partida amaitzean, talde bakoitzeko kapitainak edo ordezkariek partida bakoitzaren **akta berrikusi eta sinatu** behar du derrigor, emaitza eta jokalarien zerrenda egiaztatu ahal izateko. Partida amaitu eta 10 minutura dokumentu horri egiten zaizkion **alegazioak ez dira aintzat hartuko**.

10. **Lehiaketa Antolatzeko eta Kontrolatzeko Batzordeak eskubidea izango du norbaiti zehapena ezarri eta txapelketatik kanporatzeko, kirol instalazioetan kirolari ez dagokion jarrera eta gizalegezkoa ez den jarrera desegokia izanez gero. ANTOLAKUNTZAK ESKUBIDEA DU TXAPELKETAN ZEHAR ARAUAK ALDATZEKO, BERTAN SORTZEN DIREN EGOERETARA EGOKITUZ. PARTE HARTZAILEEK, IZENA EMATEAN, ARAU HAUEK ONARTZEN DITUZTE ETA BEHARTUTA DAUDE ARAUOK BETETZERA.**

bi-kirolak@ehu.eus

www.ehu.eus/kirolak-bizkaia

BIZKAIKO CAMPUSA
CAMPUS DE BIZKAIA
Polideportivo Universitario
48940 Leioa (Bizkaia)